

RUEDA DE PRENSA

PRESENTACIÓN DEL **VIII ACTO DE SOLIDARIDAD CON VÍCTIMAS**  
ORGANIZADO POR GESTO POR LA PAZ

*En nuestro nombre*

La Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria realizará el próximo domingo, día 23 de diciembre, en Bilbao el VIII Acto de Solidaridad con las Víctimas. En esta ocasión utilizaremos el lema “**EN NUESTRO NOMBRE**” y escenificaremos todos los valores y apuestas que queremos hacer en nuestro nombre -defensa de la vida, de los derechos humanos y los principios democráticos- representando nuestro más firme compromiso con las víctimas; y también escenificaremos todas aquellas cuestiones que NO queremos que se hagan en nuestro nombre, como instrumentalizar la vida humana en la defensa de una causa, la persecución y amenaza, la justificación de la violencia, etc.

Raúl y Fernando han sido las dos últimas víctimas de 40 años de terror. Ellos y todas las víctimas que les han precedido son la primera causa para deslegitimar el uso de la violencia. Su reconocimiento nunca podrá limitarse a un acto de homenaje, sino que necesariamente tiene que suponer el firme compromiso de nuestra sociedad frente a la violencia, desde el convencimiento de que social y políticamente la violencia no ha tenido ni tiene ninguna justificación y que no tendrá ninguna contraprestación que pudiera interpretarse como el más mínimo signo de razón a quienes aprietan el gatillo.

Hoy, consideramos imprescindible expresar públicamente nuestra solidaridad y reconocimiento a las víctimas de la violencia de la mejor manera posible: por una parte, exigiendo a quienes ejercen la violencia y la apoyan que, de una vez por todas, asuman su responsabilidad y tomen la decisión de acabar con esta práctica que tanto dolor y tanta injusticia ha generado en nuestra sociedad; y, por otra, sensibilizando a la sociedad sobre la imprescindible deslegitimación de la violencia.

La sociedad, aunque harta ya de tanta violencia y dolor causado, tiene que responder y asumir que es necesario un compromiso público en contra del terrorismo, de tal manera que quede claro que la violencia no tiene ninguna aceptación ni legitimidad, que no va a conseguir imponer ningún proyecto y que no se ejerce en nuestro nombre. Es patente desde hace tiempo, que la mayoría de la sociedad rechaza el uso de la violencia, pero no podemos dejar que el hastío se instale entre nosotros porque nuestra dejación, la de quienes apostamos por la democracia, la política, el diálogo y el respeto a la vida humana, será la victoria de quienes renuncian a todo lo anterior al deshumanizar al adversario utilizando la vida humana como medio de obtención de unos determinados fines.

Quienes durante todos estos años han tratado de imponer sus proyectos y de doblegar la voluntad política de la sociedad, han de percibir el rechazo de la inmensa mayoría de los ciudadanos que no acepta ni la violencia, ni sus explicaciones, ni contextualizaciones. Existe un compromiso asumido por la mayoría de la sociedad en la defensa de los derechos humanos y los principios éticos y democráticos como fundamentos básicos y de carácter prepartidista. Es verdad que tenemos que afianzar este compromiso, pero ya no tiene vuelta atrás. Gesto por la Paz seguirá trabajando porque ellas, las víctimas, desde la primera hasta la última, nos lo exigen. La misma existencia de una sola víctima ya nos debe colocar en una actitud radicalmente contraria al uso de la violencia y radicalmente a favor del respeto a la vida humana.

Por esta razón, el lema del VIII Acto de Solidaridad con las Víctimas es **EN NUESTRO NOMBRE**. Este lema está dirigido por una parte, y fundamental, a ETA porque es ETA la responsable de la persistencia del terrorismo y en sus manos está el abandono definitivo de la violencia. Esta organización terrorista tiene que saber, le tienen que doler los oídos de escuchar una y mil veces a la sociedad por la que dice luchar, que no actúa en nuestro nombre, que rechazamos todos y cada uno de sus métodos, que no nos creemos la asunción de causas populares para justificar su existencia, que queremos la paz y resolver nuestros problemas sin su cruel tutela de casi mil asesinados y miles y miles de personas destrozadas física y emocionalmente. En nuestro nombre, NO.

Por otra parte, el lema también tiene una lectura para la sociedad. Como movimiento social, hacemos un firme compromiso con el valor y el respeto a la vida humana, a la libertad, a la justicia, a una educación en valores, a la democracia y a la paz. Esto supone, inequívocamente, deslegitimar la violencia, posicionarnos contra su uso y contra la amenaza, la tortura diaria y la persecución que sufren miles de personas. Y, también, posicionarnos a favor de una reconstrucción moral de la sociedad que nunca, bajo ningún concepto puede olvidar a cada una de las víctimas de ese horror. Por ello, el domingo, 23 de diciembre, reafirmaremos públicamente y comprometeremos nuestro nombre en la tarea de:

- **Reconocer y expresar nuestra solidaridad hacia las víctimas.** Reconocemos que ellas fueron quienes directamente sufrieron el ataque dirigido a toda la sociedad y que, por lo tanto, ellas se han convertido en la primera causa por la que decir NO EN MI NOMBRE.
- **Deslegitimizar la violencia.** Asumimos la tarea de deslegitimar el uso de la violencia de tal modo que no parezca que sirvió para nada más que para crear dolor y sufrimiento.
- **Educar en valores.** Somos plenamente conscientes de que una sociedad castigada por el terrorismo durante 40 años necesita recuperar la degeneración que dicha violencia ha causado en conceptos fundamentales como democracia, paz, tolerancia, diálogo, libertad, justicia, etc. y fomentar otros como la empatía, la compasión, la apreciación del valor de la vida del adversario, etc.

Y rechazamos públicamente que en nuestro nombre se ejerzan acciones contrarias al derecho a la vida, como fundamento del resto de los derechos del ser humano, o que se justifique o contextualice el uso de la violencia. Por ello diremos que NO a la

---

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA  
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

---

deshumanización del adversario, NO a la instrumentalización de la vida, NO a la justificación de la violencia, NO a la negación de la pluralidad, NO al desprecio al dolor ajeno, NO a la persecución y amenaza, NO al olvido a las víctimas.... NO a ETA. Animamos a toda la ciudadanía a que el domingo, 23 de diciembre, en el Parque de Doña Casilda (a la altura de la calle Gregorio de la Revilla) a las 13'00 h. participe en este Acto de Solidaridad<sup>1</sup> y de compromiso hacia las víctimas del terror.

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA  
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

19 de diciembre de 2007



---

<sup>1</sup> Acto realizado con la colaboración de la Dirección General de Apoyo a las Víctimas del terrorismo. Ministerio Interior.

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: [gesto@gesto.org](mailto:gesto@gesto.org)      <http://www.gesto.org>

## PRENTSAURREKOA

### **BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEAK ANTOLATUTAKO BIKTIMEKIKO ELKARTASUNERAKO VIII. EKITALDIAREN AURKEZPENA**

#### *Geure izenean*

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundeak Biktimekiko Elkartasunerako VIII. Ekitaldia egingo du datorren igandean, abenduak 23, Bilbon. “**GEURE IZENEAN**” izango da aurtengo ekitaldian erabiliko dugun goiburua eta geure izenean gauzatu nahi ditugun balio eta apustu guztiak –biziaren, giza eskubideen eta oinarri demokratikoen defentsa-agertzera emango ditugu, biktimekiko konpromisorik sendoena irudikatuz; eta, era berean, gure izenean inork egiterik nahi EZ dugun gauza guztiak ere - esate baterako, giza bizitza delako auzi bat lortzeko tresna bihurtzea, jazarpen eta mehatxua, indarkeria justifikatza, e.a.- adieraziko ditugu.

Raúl eta Fernando izan dira izuz jantxitako 40 urteko historiaren azken bi biktima. Hauek eta beraien aurretik izan diren biktima guztiak dira indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzeko arrazoi nagusia. Beraiei zor diegun aitorpena ezin da omenaldi hutsa izan; ezinbestekoa da gizartearen konpromiso sendo bihurtzea, bi uste hauetatik: indarkeriak gizarte eta politika mailan inoiz ez duela izan –ezta izango ere- justifikaziorik, eta tiroa botatzen dutenei gutxieneko arrazoi zeinutzat har daitekeen ordainik ez duela izango.

Gaur, ezinbestekotzat jotzen dugu indarkeriaren biktimei ahalik eta zuzenen gure elkartasuna eta aitorpena publikoki adieraztea: alde batetik, indarkeria erabiltzen eta babesten dutenei behingoz dagokion erantzukizuna exijituz, gure gizartean hainbeste samin eta bidegabekeria eragin duen jarduera horri uko egin deizaioten; eta, bestetik, gizartea sensibilizatz, indarkeriaren nahitaezko deslegitimazioari buruz.

Gizartea, nahiz eta hainbeste indarkeria eta saminen eraginez gogaituta egon, erantzun egin behar du eta terrorismoaren aurkako konpromiso publikoa beharrezkoa dela onartu behar du, argi eta garbi gera dadin indarkeriak ez duela inolako onarpen eta zilegitasunik, ez duela inolako egitasmorik inposatzerik lortuko eta ez dela gure izenean erabiltzen. Nabarmena da aspalditik gizartearen gehiengoak indarkeriaren erabilera gaitzesten duena, baina gogaitasunak ez du gure artean nagusitu behar, gure utzikeria, demokraziaren, politikaren, elkarrizketaren eta giza biziaren errespetuaren aldeko apustua egiten dugunon utzikeria, aurreko guzti horri uko egiten diotenen garaipena izango delako, giza bizia helburu jakin batzuk lortzeko bide bezala erabiltzean, aurkariari gizatasuna kenduz.

Urte hauetan beren egitasmoak imposatzen eta gizartearen borondate politikoa menderatzen saiatu direnek, herritar gehienek ez dutela ez indarkeria, ez honen induruko azalpenak ezta guzti hori sartu nahi den testuingurua ere onartzen ikusi behar dute. Gizartearen gehiengoak bere egin duen konpromisoa dago alderdi esparruaren aurreko funtsezko oinarritzat jotzen diren giza eskubideen eta oinarri etiko eta demokratikoen defentsan. Egia da konpromiso hori finkatu egin behar duguna, baina dagoeneko ez du atzera bueltarik. Bakearen aldeko Koordinakundeak lanean jarraituko du senti dezakegun neke eta gogaitasunaren gainetik, beraiek, biktimek, guzti-guztiekin, exijitzen digutelako.

Biktima bakar bat balego ere, gure jarrerak indarkeriaren aurkakoa eta giza biziaren errespetuaren aldekoa izan beharko luke erabat.

Hori dela-ta Biktimekiko Elkartasunerako VIII. Ekitaldiaren goiburua: **GEURE IZNEAN**. Goiburu hau, alde batetik eta funtsean, ETAri zuzenduta dago. ETA da indarkeriaren iraupenaren arduraduna eta bere esku dago indarkeriaren erabilerari behin-betiko uko egitea. Erakunde terrorista honek ondotxo daki, dagoeneko belarrietako mina ere izango du, berak defendatzen duela uste duen gizarteari mila aldiz entzun diolako, ez duela gure izanean jarduten, bere metodo guztiak gaitzesten ditugula, herriaren auziak bere gain hartzeak ez duela bere existentzia justifikatzen, bakea nahi dugula eta gure arazoak mila hildako eta fisikoki zein emozionalki apurtuta dauden milaka eta milaka kaltetu eragin dituen bere tutoretza krudelik gabe konpondu nahi ditugula. Geure izanean, EZ.

Beste alde batetik, goiburuak gizartearentzako irakurketa ere badu. Gizarte mugimendu garenez, giza bizia, askatasuna, zuzentasuna, balioetan heztea, demokrazia eta bakea baloratzeko eta errespetatzeko konpromisoa dugu. Horretarako, nahitaez, indarkeriari zilegitasuna kendu nahi diogu eta indarkeria erabiltzearen aurka eta milaka lagunek egunero jasaten duten menatxu, tortura eta jazarpenaren aurka gaude. Eta, era berean, izu horrek eragindako biktimak inola ere ahaztu behar ez dituen gizartearen berregite moralaren aldeko jarrera dugu. Horregatik, abenduaren 23an, igandez, ondorengo hauetan berretsi eta konprometituko gara:

- **Biktimak aitortu eta beraiekiko elkartasuna adierazi.** Gizarte osoari zuzendutako erasoa beraiek zuzenean jasan zutela aitortzen dugu eta, horregatik, beraiek direla NIRE IZNEAN, EZ esateko lehenengo arrazoi.
- **Indarkeriari zilegitasuna kendu.** Indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzeko konpromisoa geure egiten dugu, samina eta sufrimendua sortzeko baino ez duela balio izan ikustarazteko.
- **Balioetan hezi.** Berrogei urtez terrorismoaren zigorra jasan duen gizartea, indarkeriak demokrazia, bakea, tolerantzia, elkarritzeta, askatasuna, zuzentasuna... bezalako funtsezko kontzeptuetan eragin duen degenerazioa zuzendu egin behar duela uste dugu eta, era berean, enpatia, errukia, aurkariaren biziaren balioa estimatzea bezalako beste batzuk sustatu.

Eta publikoki gaitzesten dugu geure izanean biziaren eskubidearen aurkako ekintzak burutzea, berau delako gizakiaren gainerako eskubideen oinarria, edo indarkeriaren erabilera justifikatza edo frogatzea. Horregatik **EZ** esango diogu aurkariari gizatasuna kentzeari, **EZ** bizia tresnatztat hartzeari, **EZ** indarkeria justifikatzeari, **EZ** anitzasuna ukatzeari, **EZ** bestearren samina mesprezatzeari, **EZ** jazarpen eta mehatxuari, **EZ** biktimak ahazteari... **EZ** ETAri. Dei egiten diegu herritar guztiei, igandean, abenduak 23, Doña Casilda Parkean (Gregorio de la Revilla kalearen parean) izuaren biktimekiko Elkartasun eta konpromisorako Jarduera honetan parte har dezan.

**EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**  
19 de diciembre de 2007



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>